

IZOTZEAN DESAGERTUTA

Istorio hau, nire historia da, Magnusen historia. Bai, nire izena Magnus da, eta duela 50 urte, Islandiako detektiberik famatuena izan nintzen. Garai horretako aldizkari guztietako azaletan agertzen nintzen eta nire kasuak mundu guztian ziren ezagunak eta miretsiak. Baina ez dut nire bizitza osoa kontatuko, baizik eta nire bizitza aldatu zuen gertakaria.

Istorio hau, duela 50 urte hasi zen, Reikiavik hirian. Betidanik bizi izan naiz hiri honetan eta oso gutxitan ateratzen nintzen bertatik. Detektibe lanetan aritzen nintzen, eta bereziki nire hiriko kasuak argitzen nituen arren, mundu osoko kasuetan ere aritzen nintzen. Horren ondorioz, oso lanpetuta bizi nintzen, eta ez nuen denborarik izaten oportretan kanpora joateko edo eta nire inguruko pertsonekin sozializatzeko. Nire ingurukoek egoera hortaz ohartu ziren, eta laguntzea erabaki zuten. Haien plana, niretako plan bat prestatzea eta plan horretan hiritik kanpo zeuden Islandiako herri txikietan zehar bidaia bat egitea zen; baina horretarako denbora batez, lana utzi behar nuen. Argi dago, nire lana denbora batez uzte horrek ez zidala graziarik egiten, izan ere, ez dakit nola lortu zuten ni konbentzitzea, baina azkenean haien plana onartu nuen.

Pare bat aste geroago, nire autoan atera nintzen hiritik. Hiritik kanpo dena guztiz desberdina iruditzen zitzaidan, eta herri txikiek zuten natura eta paisaiak estimatzen ikasi nuen. Herri bateko denda batean argazki kamara bat erosi nuen, eta inguruko fauna eta floraren argazkiak karpeta batean gordetzen hasi nintzen. Hortik aurrera, astero zona ezberdin batean aritzen nintzen argazkiak ateratzen eta jende berria ezagutzen.

Bidaia lau hilabete irauteko asmoa nuen, eta azkenengo asteetan elur asko egiten hari zen. Horren ondorioz, herriz herri joaterakoan kontu handiz joan behar nuen, hori dela eta, denbora gehiago behar nuen autoz mugitzeko. Pare bat aste falta zirenez hiritik gertu ibiltzen nintzen, baina halako bidaia batean, nire ustez, urte horretako elurterik handiena jausten hari zela, ikusmena oso mugatua zenez eta nabigatzailearen konexioa galdu nuenez, autoa trabatu egin zitzaidan elurretan, eta guztiz galdua nenbilenez, ibilgailutik irten eta inguruan jendea topatzen hasi nintzen. Ordu erdi beranduago, herri oso txiki bat aurkitu nuen.

Herria hutsik zegoela zirudien, baina argi bat ikusi nuen eta gerturatu nintzenean taberna bat zela konturatu nintzen, eta bertara sartu nintzen. Taberna barruan bederatzi pertsona zeuden, bakoitza adin ezberdinekoa, baina guztiek oso arraro begiratu zidaten. Ez zidaten ezagutzen, eta hori niretako oso arraro zen, gehienetan, joaten nintzen toki guztietan ezagutzen baitzidaten. Barran jazarri nintzen, eta txokolate bero bat eskatu nion tabernariari. Bitartean gainerakoek begira-begira gelditu zitzaidaneren, baina ez zuten ezer esaten. Txokolatea zerbitzatu ninduenean, haien artean hitz egiten jarraitu zuten. Lekua nahiko lasaia zen, eta bakarrik haien elkarrizketa entzuten zenez, azkenean tentazioan erori nintzen eta haien elkarrizketa entzun nuen. Dirudienez, hainbat hilabete zeramaten animaliak galtzen, hau da, animaliak desagertu egiten zirela. Nik, ebidentziak entzuten eta datuak lotzen saiatzen nintzen, baina haien eta nire ustez, gertatzen hari zitzaiena oso arraroa zen. Nire buruak egoera hori kasu bat bezala identifikatu zuen, eta nire barnean "kasu" hori argitzen saiatu nintzen. Izan ere, hainbat datu faltan botatzen nituen eta azkenean galderak

egin behar izan nituen. Haiek erantzun egin zidaten, pixka bat nahasita, eta pare bat minututan haien kezka guztiak argitu nituen.

Taberna guztia harrituta utzi nuen, eta nik, niri gertatutakoa eta nor nintzen azaldu nien. Haiek laguntza eskaini zidaten, eta horrela gehiago ezagutu nituen. Herri hori haien arbasoek sortu zuten, baina nahiko sekretua zenez inoiz ez zitzaion izenik ipini eta ez zen mapetan kokatu. Guztira, bederatzi herritar ziren; sei pertsonako familia bat, tabernaria; Kristín, dendaria; Vopni eta alkatea eta ehiztaria; Númi. Gau hori beraiekin igaro behar izan nuen tabernariaren etxean, elurtea gutxitu arte.

Hurrengo egunean goizean goizeko argiarekin esnatu nintzen, baina oso nekatuta sentitzen nintzen. Elurtea gelditu egin zela ikusterakoan herritik alde egiteko prestatu nintzen, baina etxetik irten nintzenean, herritarrak oso kezkatuta ikusi nituen; bereziki familiako gurasoak, eta haien artean hitz egiten.

—Zer gertatzen zaizue?— galdetu nuen kezkatuta.

—Nire seme-alaba txikiena...—esan zuen Annak; familiako amak, negar eztulka—. Desagertu egin da!

—Zer? Desagertu? Noiz, non, nola?—galdetu nuen.

—Gaur gauean izan da. Gure seme alabak esnatzera joan garenean bera falta zen eta ez dugu inondik ikusi— azaldu zuen familiako aitak; Jón-ek.

—Lasai egon, ez naiz herritik irtengo zuen semea seguru dagoela jakin arte— baieztatu nuen, egoera lasaitzeko asmoz.

Egun osoa pistak bilatzen igaro nuen, baina ez nuen ezer argirik topatu. Dena oso arraroa zirudien, umea bat-batean desagertu bazen bezala. Azkenean ez nuen ezer garrantzitsua aurkitu, beraz, hurrengo egunean ere bertan gelditzea erabaki nuen.

Hurrengo goizean ez nintzen ni bakarrik esnatu, baizik eta etxeko ateko txirrinak esnatu ninduen. Atea ireki nuenean Anna zegoela ikusi nuen, oso triste eta nekatuta.

—Magnus! — deitu zidan oso larrituta.

—Zer duzu? — galdetu nuen loguraz.

—Nire seme-alaba guztiak desagertu dira gaur gauean, eta pare-bat ordu daramagu haien bila baina ez ditugu inondik aurkitu.

—Oraintxe bertan noa laguntzera

Inguruko basoetatik ibili ginen bilaka, baina ez genuen arrastorik aurkitu. Ala ere, haien etxera joan nintzenean, umeen gela guztiz nahasita zegoen eta hainbat gauza apurtuta ere. Pista guztiak xehetazunarekin aztertzen nengoela, odola ikusi nuen, eta horrek desagertze arrunta ez zela pentsarazi zidan. Izan ere, gurasoei datu hori ez kontatzea erabaki nuen.

Egun osoa igaro nuen pista gehiagoren bila, baina ez nuen ezer berririk aurkitu, eta horrek asko kezkatu ninduen. Kasu hau oso arraro iruditzen zitzaidan, eta, gainera, inguru horretan telefonorik ez zegoenez ezin genuen poliziari deitu.

Hurrengo egunean egun osoa ikertzen igaro nuen, baina ez nuen ezer lortu, eta gainera herritarrak geroz eta kezkatuagoak zeuden. Egia esanda nire barnean zerbaitek esaten zidan ume horiek pertsona batek desagerrarazi zituela, beste teoria guztiak ez baitzuten batere zentzurik. Gainera, horrek, logelan aurkitu genuen odolari ere ematen zion zentzua.

Biharamun-goizean, nekatuta esnatu nintzen eta lanean asteko asmoa nuen, baina, atearen txirrinak deiturik atea zabaldu nuen, eta alkatea ikusi nuen oso larrituta.

—Kaixo Magnus— esan zuen alkateak prisaka

—Egun on, Númi! Zer duzu?

—Egoera hau oso larria da. Anna eta Jón-en etxera joan naiz esnea eramatera, baina haiek ere desagertu egin dira, eta haien oheak odolez beteta daude.

—Berehala noa—

Gelditzen ziren hiru herritarrak eta ni, familiaren etxera joan gien. Baina, gurasoen logelan aurkitu genuen aztarna bakarra odola izan zen. Puntu horretan, guztiok pentsatzen genuen gertatutako guztia pertsona batek egin zuela. Gainera, normala denez, haiendako ni nintzen susmagarri nagusia. Izan ere, gau hori guztiok batera taberna barruan igarotzea erabaki genuen, guztiok beldurrez genbiltzalako.

Hori izan zen egun hartako nire asken oroitzapena, hurrengo egunean herriko plaza erdian esnatu bainintzen poliziaz inguratuta eta herritarren bederatzi gorputzak nire inguruan borobil bat osatzen. Psikiatriko batera eraman ninduten, eta bertan proba batzuk egin ostean Identitate Disoziatiboaren Trastornoa dudala diagnostikatu ninduten, hau da, pertsona batek bi identitate edo gehiago txandakatzen dituenean. Identitate bakoitzak bere portaera-, ahots- eta memoria-ereduak izan ditzake, hutsune amnesiko esanguratsuak eraginez. Doktoreek ondorioztatu dute, herriko hiltzailea ni nintzela, hau da, gauean herritarrak hiltzen nituela eta egunean zehar nire hilketak aztertzen nituela.